

Iruñeko toponimiaz (I)

PATXI SALABERRI ZARATIEGI*

Lau hau Jimeno Jurío ikertzaile ezagunak bildutako materialetan oinarritua dago, eta liburu moduan argitaratzekoa den ikerketa zabalago baten zatia baizik ez da ¹. Ikerketa horrek aipatu ikertzaileak Iruñerrian egindako toponimia-bilketa lana osatzen eta bukatzen du.

Oraingoan hiru sail hauek ikustera mugatuko gara:

1. Iruñeko toponimoetan aurkitzen ditugun euskal atzizkiak.
2. Iruñeko toponimian azaltzen diren erdal generikoak eta berauen euskarazko baliakideak.
3. Hiriburuko leku-izenetan ditugun euskal posposizioak.

Ikusiko denez, hiru sail hauek aztertzerakoan maiz Iruñerriko toponimiarajoa dugu laguntza eske, bai eta beste biderik ez genuenean edo egoki iruditu zaigunean Kokoaz ² kanpoko beste herri batzuetako toponimiara ere.

Hurrengo artikulua baterako uzten dugu Iruñeko leku-izen gatazkatsuen azterketa.

1. Euskal atzizkiak

Iruñeko toponimoetan aurkitzen ditugun atzizki eta atzizki ustezkoak honako hauek dira:

-(a)ba:

Ez dakigu atzizkia den ala ez, ez eta bere esanahia eta nondik-norakoa zein den ere. Iruñean *Ezkaba* izenean azaltzen bide da, Nafarroan *Aldaba*

* Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

1. Lan honetan ez dugu toponimoen aldaerarik ez erreferentziarik ematen. Hauek aipatu ikerketa zabalago hori argitaratzean agertuko dira.

2. Hemen *Kokoa* eta *Kokoerria* 'Iruñerria' adieraz ibiltzen ditugu.

eta *Eslaba*-n izan genezake, Araban *Araba*-n, eta Aragoan baina Nafarroako mugan *Sadaba*-n.

-(a)ndo:

Iruñean *Otsandozubia* toponimoan daukagu atzizki hau, *Otsando* osagaien. Izen hau *Otsoa* edo *Otxoa* antroponimoaren txikigarria da, eta erdarazko *Lopellon*, *Lupellu*, eta euskarazko *Lopetto* edo *Lopetxo*-ren baliakide dugu, eta *Garzeando* (*Garzia*-ren txikigarria)-ren kide ³.

Teorian -(a)ngo-tik erator genezake, atzizki honen aldaera busti baten desbustiduraren emaitzat hartuz (cf. *bongo* > *onddo*, *ontto*), baina -(a)ndo 1230erako dokumentatzen da, eta hau aipatu etorki horren aurka mintzo da argi eta garbi. -*Nto* atzizkia ere ezaguna da ⁴.

-aga:

Arriaga, *Butzuaga*...

Atzizki honek eskuarki lekua adierazi ohi du, alegia, bere xede nagusia leku-izen baten, eta ez izen arrunt baten, aitzinean gaudela aditzera ematea dateke (*udarea* / *Udareaga* parean, adibidez). -*Aga* ugaritasunezkoa ez dela garbi ikusten da toponimo ber bat anitz aldiz atzizkiaz horniturik zein atzizkirik gabe azaltzen baita, nahiz hau ez den erabateko froga, -*eta* aztertzean ikusiko denez. Iruñean, dena den, aldizkatze honen adibide bakarra dugu: *Iturriapurria* / *Iturriapurriaga*.

Jatorriari dagokionez, Caro Barojak Schuchardti jarraikiz etorki zeltiarreko atzizkia dela deritza, eta pertsona-izenei loturik baserri (?) eta herri izen franko sortarazi dituen -*acus*, -*aca*-rekin zerikusia duela ⁵. Beste autore batzuek pluraleko -*ak* bukaerarekin erlazionatu dute ⁶.

-ain:

Antsoain, *Aitzoain*, *Barañain*, *Iatzain*...

-*Ain*-dun toki-izenak bereziki Nafarroan eta Zuberoan edireten ditugu Euskal Herrian. Caro Barojaren arabera ⁷ bukaera hau -*anu* bukaera latinotik

3. MITXELENA, PT, 137. or. Aldatzen *Maria de Ochandorena* izenekoà azaltzen da, deitura beste anitzetan bezala etxe-izena bide delarik: "Jones de gójenechea y maria de Ochandorena su mug. vezos. del lugar de aldaz", PRA-Ihaben, 1. k., 1608.

4. Gai honetaz ikus MV, 197-211. orr., FHV, 189-190 eta 252. orr., eta EFP, 214. or.

5. *Materiales para una Historia de la lengua Vasca en su relación con la Latina*, Salamanakako Unibertsitatea, 1945, 203-204. orr.

6. Ikus gai honetaz Mitxelenak FHV, 238. orrialdean eta "Notas lingüísticas a 'Colección Diplomática de Irache'", PT, 87-118. orrialdeetan dioena. Lotura hau idaroki zuen lehena ALBERT, I., izan zen. Ikus G AVELEN, H. EPB, 339. or.

7. *Materiales*. 59-76, orr.

atera da eta *-ain*, *-an* “frantsesen” kidekoa da. Autore honen iritziz “fundus” edo “ager” -aren lehen jabearen izenari eratzikitzen zitzaion.

Mitxelena⁸ orohar ados dago Caro Barojaren iritziarekin, eta azterbide honek “gogobeteko etimologia mordo handia” ematen duela uste du. Alabaina, Barojaren *-anu*-ren ordezkari genitiboaren *-ain* amaiera proposatzen du, horrek *-au(n)* emango baitzukeen euskaraz, eta bestalde, zailtasun fonetikoak badirela deritza, **-ani* Nafarroan *-ai* bilakatuko baitzatekeen, ez *-ain*. Irakasle errenteriarrek *-ain*-dun izenak euskarazko genitibo singularraren hondarkia den *-ain* (< -aren)-en bitartez azaltzeko egin diren saioak arbuiatzen ditu, eta atzizki hau ez-latinoa dela dioen L. Anderssenen teoria oso defendagarria dela uste du.

Alfontso Irigoienek arabera *-ain* patronimiko askotan azaldu ohi den *-ano*-ren dobletea da, ez nahitaez genitiboa⁹.

Autore guzti hauek ados daude *-ain* sarri *-gain* ‘buru’-ren laburketaz besterik ez dela aitortzerakoan. Bestalde, eta Mitxelenak AV-en dioenez¹⁰, *-aran* ‘ibar’ batzuetan *-arain*-ekin aldirkatzen da, eta gure iritziz badaiteke azken aldaera hau laburtu eta *-ain* emana, Eslabako egungo *Balurian*-en kasuan agitu moduan (*Baluriarana* gisa dokumentatzen da)¹¹.

-as/-az, *-es/-ez*, *-is/-iz*, *-os/-oz*, *-us/-uz*:

Zeapeitz, *Ezkirotz*, *Lambos*.

Larramendiz geroztik zenbait ikerlarik (Aingeru Irigarayk, kasu¹²) *Rodriguez*, *Sánchez*, *Pérez*, *Adameiz*, *Ochocoiz*... eta besteren moduko patronimikoek euskal deklinabideko *-z* instrumentalarekin zerikusia zutela uste izan dute.

Caro Barojak S. Aranari jarraikiz *-iz*-dun toki-izenen iturburua *-icus*, *-icius*, *-cius*-en *-ici* genitiboaz amaitzen diren patronimiko latinoetan bilatu behar dela uste du¹³. Araua zabalduz *-az*, *-ez*, *-uz* -ez bukatutako antroponimoak sortuko ziren, eta hauek, beren aldetik, amaiera bereko toponimoak sortaraziko zituzten. Multzo honetatik *haitz* ‘malkorra, barga’ izan dezakegun mendi eta gainen izenak kendu behar ditugu. Era berean, Caro Barojak ez du uste, proposatu denaz bestalde, *-oz*-ez bukatu toki-izenek *hotz*-ekin loturirik dutenik, ez eta ugaritasunezko *-tze*-rekin ere¹⁴.

Gerhald Rohlfsek euskarazko *-otz(e)*, *-ots*-dun toponimoak Akitania, Aran, eta Pallarsgoieneko *-ós*, *-ost* erromantzeekin lotu ditu¹⁵, bai eta hauekin

8. AV, 18. sarrera.

9. DRPLV-II, 193-203. orr.

10. 50-51. orr.

11. NEEATB.

12. UGDEN, 118-128. orr. Gai honetaz ikus IRIGOIENEN, A., LVRLOCM, 15. or.

13. AV-eko 347. sarrera, eta *Materiales*, 99-116. orr.

14. *Oz*-ez akitzen diren batzuk *-otze* ziren autore honen arabera tokian tokiko hizkeran.

15. “Sur une couche préromane dans la toponymie de Gascogne et de L’Espagne du nord”, *Revista de Filología Española*, XXXVI, 1952, 209-256. orr.

zuzenki erlazonaturik dauden Pirineoek hegoaldeko Aragoako *-ués*, *-ueste*-z amaitutakoekin ere. Ikerle honen ustez bukaera horiek dituzten toponimoek antroponimoetan dute sorburua, oinarri nabarren kopuru handia azaltzeko bide bakarra hau baita.

Koldo Mitxelenaren arabera *-i(t)z* bukaerak jatorri ezberdinetako formazio ezberdinak hartzen ditu bere baitan. Zenbaitetan ugaritasunezko *-tz*-ren baliakidea izan daiteke (*Zeapeitz*-en adibidez)¹⁶; beste batzuetan *-ici* genitibotik erator daiteke (*Albéniz*, *Apellániz*...), beste batzuetan azkenik toponimo edo deituren eratorriak sortzeko erabili izan dela dirudi (*Aldama* / *Aldamiz*, *Arrona* / *Arroniz*...) ¹⁷.

-A(t)z, *-a(t)s* bukaeraz frankotan azaltzen dela besterik ez du esaten, eta *-otz*-i dagokionez batzuetan, Caro Barojak ez bezala, euskarazko *hotz* izan daitekeela uste du (*Araotz*-en esaterako), eta aipatu autore horrekin batera batzuk patronimikoekin loturik daudelako hipotesia onartzen duela dirudi (*Bellacoz*, *Munoz*...).

Rohlfsen teoriez den bezainbatez, kideko bukaera duten euskal toponimoen arteko alderaketa egin behar dela dio (*Andoze* / *Anós* adibidez), eta *-oz*-ez bukatzen diren toponimoek erromantzez eta euskaraz duten azentuaketa ezberdina nabarmentzen du (*Uxtárroz*, *Vidángoz* // *Uxtarróze*, *Bidankóze*...). Euskarazko izenek eta *-ues*-ez amaitzen diren erdarazkoek duten azentuaketa berdintasuna ere azpimarratzen du: *Navaskóze* / *Navascués*¹⁸.

-Os bukaeraz Mitxelenak deitura batzuetan (*Galdos*, *Obanos*...) agertzen dela eta *Ubillos* Zumaian 1610ean *Ubillus* itxurapean dokumentatzen dela esatera mugatzen da.

Alfontso Irigoienek arabera *-i(t)z*, *-i(t)z*-ez akitzen diren izenak latin bulgarrean ohizkoak ziren hirugarren deklinabideko genitiboaren *-o*, *-onis*-etik heldu dira (*Eneconis* > *Enekoitz*). *-O(t)z*-ez bukatzen diren izen batzuk jatorri berekoak dira, kasu hauetan bilakaera *-oitz* > *-otz* (*Agoitz*, *Aoiz* / *Aoz*, *Aio*-ren genitiboa den *Aionis*-etik) izan delarik.

Autore honek ez du uste, ordurako deklinabidea hizkuntza mintzaturik desagertua zelako, *-i*-z amaitzen diren inskripzioetako izen asko genitiboan daudenik, nominatiboan baizik. Honen ondorioz *Sancho* (*Sanço*-ren aldaera adierazkorra da) eta *Sanchi* (baita erromantzez arrunta den *-e*-dun *Sanche* ere)-ren moduko dobleteak sortu dira, eta izen hauetatik *Sancheiz*, *Sánchez*... eta antzeko patronimikoak, geroago hauek (patronimikoak) egiteko *-e*-dun aldaerak berezitu badira ere.

Enneconis-etik bilakaera erromantzez *Ennecones* atera da, eta honetatik *Enecons*, azentuaren ondoko bokalaren erortzeaz. Hemendik dokumentatu ez den **Enecos* bezalako aldaera atera zitekeen. *-I(t)z* (*-t*)z aldaera du) atzizki patronimikoa autonomo bilakatu zen, eta honen ondorioz edozein

16. Bukaera hau *-tze*-tik atera ahal izan da, atzizkiaren azken bokala erortzearen ondorioz: cf. Olloko 1740ko *Ziaurriza* (PRA-Asiain, 127. k.) / 1793ko *Ziaurriz* (Id., 174. k.), zalantzarik gabe afrikatuz ebakia.

17. AV, 347. sarrera.

18. AV, 512. sarrera.

oinarriri eratziki zekiokkeen. Honela bada, *Annaia* antroponimotik esaterako *Annaiaz* patronimikoa sor zitekeen, eta *Azenar*-tik *Azenar(t)z*, gero hauek agian toponimo bilakatu zirelarik.

-di/-ti:

Arantzedi, Arrosadia, Intxaustia...

Behinolako *do.i* silababiko atzizkiak oso zabaldurik dauden *-doi* eta *-dui* aldaerak eman ditu¹⁹, eta hauek Nafarroan hedadura gehien duen *-di*. Hondar hau erabili da Iruñean eta Iruñerrian, goian aipatu toki-izenek frogatzen dutenez. Zenbaitetan *-dui*-ren laburketaren ondorioa den *-du* edireten dugu, *Aristu* toponimo nagusian esaterako (**Ariztu*, *Ariztuia* 1042an²⁰). Bestelako aldaerak ere badira, berriak gehienbat, aztergai dugun atzizki honen eta antzeko esanahia duten beste batzuen arteko nahasketaren ondorioz sortuak. Horzkari ahoskabea duen aldaera (*-ti...*) txistukari ahoskabe ondoan agertu ohi da, baina hau ez da ezinbestekoa, *Ariztia* eta *Urriztia*-ren aldean *Arizdia* eta *Urrizdia* aurkitzen ditugunez gero.

Atzizki hau multzokaria da, eta batez ere fitonimoekin agertzen da, hauek *isatsa* edo *otea* bezalako landare txikietatik *pagoa* edo *intxaurra*-ren tankerako zuhaitz handietara doazela, tartean zuhamu eta zuhaixka ezberdin mordoa daudelarik. Era batera edo bestera zuhamu eta zuhaitzekin loturikako izenei ere itsasten zaie, hala nola *hosto*, *orbel*, *enborra...* eta abarri, eta oso arrunta da *harri* edo *lur* eremu semantikokotzat jo genitzakeen izenei lagun eginez (*harea*, *harri*, *kaskailu*, *kisu*, *lauza*, *legar...*). *Harri* eta *lurra* kontzeptuak *ura*-rekin nahasten duten oinarriekin ere aurkitzen dugu, hots, *istil*, *lobi...* eta hauen irudikoekin, bai eta agian *ur* izenarekin, *idoi* 'baltsa' arruntean, baldin eta hau *udo* (*ur* + *doi*)-tik atera bada bederen. Azkenik, orografiarekin zerikusia duen *zabaldi* bezalako izenen batekin ere azaltzen da²¹.

-egi, -tegi:

Agoztegieta, Erlategia...

Mitxelenak AV-en²² *-egi* eta *-tegi*-k beti jatorri bera duten garbi ez dagoe-la dio, baina aitzinago FHV-n oinarri ber baten aldaerak direla uste bide du, bietan zaharrena *-egi* izanik *-tegi arategi*-ren moduko elkartuetatik abstrakzioz sortu delarik²³. Autore honek gainera dardarkari ondoan agertu ohi den *-legi* aldaera aipatzen du (*Beorlegi*-n adibidez).

19. FHV, 107-108. orr.

20. NHI, 174. or.

21. Atzizki honetaz argitasun gehiago nahi duenak gure DAON eta TDI ikus ditzake.

22. 194. sarrera.

23. FHV, 250. or.

Atzizki honek 'tokia', 'etxea' edo 'jabetza' ematen du aditzera, eta oso arrunta da oikonimian (cf. esaterako hain zabaldurik dagoen *Apextegia* 'la Abadía') eta toponimian.

-eta:

Agoztegieta, Araneta, Arriurdineta...

Azkueren arabera atzizki honek aniztasuna adierazten duten hainbat toponimo sortarazi ditu, eta adibidez *Arrieta* 'harritzea' da, *Arteta* 'artadia'... eta abar. Caro Barojarentzat -eta-k batzutan pluralitatea eta lekua ematen du aditzera (*Elorrieta, Astigarreta...* Cf. erromantzeko *Acebeda, Avellaneda...*) eta bestetan bereziki lekua (*Zubieta* 'zubiaren lekua').

Gure irudiz garbi dago -eta (-keta aldaera izan ohi du txistukari ondoan, nahiz ez beti, bai eta -kieta ere zenbait tokitan gutxienez)-k, batzuetan kideko duen -aga-k bezala, sarri lekua adierazten duela, honelakoetan bere xede nagusia toki-izen baten aitzinean gaudela garbi uztea delarik. Atzizki hau daramaten eta ez daramaten toponimoen arteko txandakatze kopuru handiak gehienetan helburutzat lekua adieraztea duela, eta ez pluralitatea, idarokitzen du (cf. *Arriurdina / Arriurdineta* Iruñean). Hala eta guztiz ere, garbi dago, orobat, eta-k maiz aniztasun zentzua duela (cf. Iruñeko *Justizieta* = *Las Justicias*), baita Ø-ekin aldizkatzen denean ere: *Erlategi(a), Erlategieta* = *Los Abejares, Las Abejeras*, hauek ere Iruñean.

Atzizkiaren etorkiaz den bezainbatez, Schuchardtek Euskal Herriaren ondoko eskualde batzuetan maiztasun handikoa den -eda (*Acebeda, Avellaneda, Pineda, Salceda...*)-ren kidea dela uste du, eta hau bezala latineko -eta-tik heldu dela²⁴, gero *hizketa, gogoeta...* eta antzeko abstraktuak erabiltzeko ere ibili izan delarik.

Beste autore batzuk atzizkiaren jatorri latinoaren kontra daude, eta Mitxelenak latinoan izan daitekeela dio, baina zailtasun handiak ere ikusten ditu²⁵. Alfontso Irigoienek arabera atzizkia -eta inesibo pluraletik atera da²⁶.

-iru (?):

Lezkairu.

Ez dakigu egiazki atzizkia den, zeren dakigula bakarrik *lezka* fitonimoari lagun eginez agertzen baita. *Lezkairu* Nafarroan aski hedaturik dagoen toki-

24. DEV-IV-ean aipatzen da, -eta sarreran.

25. Ikus DEV-IV (-eta) eta FHV, 247-248. orr.

26. DRPLV-II, 4. or. Ikerlari honek *Zieta Ceas* itzultzen du, eta hortaz bere iritziz atzizkiak plural balioa duela garbi samar ageri da. Mitxelenak (PT, 139-140. orr.) atzizkidun eta atzizkigabeko aldaerak leku-kasuetako pluralean oinarri harturik azaltzen ditu:

"Hay, finalmente, un topónimo que se presenta en tres variantes (*Iruridoia* 98, *Iruridoita* 134, *Irurdoeta* 153) y cuya forma moderna, según el editor (p. 48), es *Irurdota*. Como está atestiguado *Idoieta* (G. Larragueta 386, 1260) y son frecuentes los nombres de lugar precedidos de numeral, es natural interpretarlo como 'las tres charcas, lagunas' o algo parecido. El nombre, en lengua vasca, sería *Iruridoi* 'tres lagunas', o, en plural que tiene que ser determinado, *Irur idoiak* 'las tres lagunas'. Pero, en los casos locales, que constituyen la posición normal de un nombre de lugar, tendríamos *Irur idoietan* 'en las tres lagunas', etc., con la

izena da (bizirik dugu, esaterako, Ororbia, Iruñe eta Uxuen), eta *lezka* ugari ohi dagoen putzu eta ubideen hurbileko lekuak adierazten ditu, hots, beste batzuetako *lezkadi*, *lezkadia* edo *lezkatzea*-ren errankidea da.

Beharbada *do.i*-tik atera dela pentsatu behar genuke, *-doi* > *-dui* > **-rui*-ren antzeko bilakaera burutu dela kontsideratuz, *d/r* nahasketa eta *-*rui* > *-iru* metatesia direla bide. Zernahi gisaz, Iruñean eta Ororbian atzizki multzokaria *-dui* gabe *-di* izateak aipatu hipotesia indargabetzen du, nahiz eta bilakaera hori *-doi* > *-dui* > *-di* aldakuntzaren aitzinetik gertatu dela pentsa ere daitekeen. Beste aldetik, bestelako landare-izenekin ere aurkitzea espero genuke, baina horrelakorrik ez dugu, dakigunez.

-koa:

Larraxkoa. Larrazkuntzea (?).

Toponimian usu askotan agertzen den atzizki txikigarria dugu hau. Le-ku-genitibotik kontsonante ondoan tarteko bokal epentetikorik ez duelako bereizten da. Honela bada, *Aranekoa* ‘haranekoa’ da, eta *Arankoa* ‘harantxoa, haran txikia’, azken hau *Arangoa* itxurapean ere azal daitekeelarik; *Aritzekoa* ‘haritzekoa’, eta *Arizkoa* ‘haritz txikia’. Bokal ondoan bat datoz bi atzizkiak, eta adibidez *Mendikoa* ‘mendikoa’ nahiz ‘menditxoa’ ian daiteke. Mitxelena-ren arabera bi atzizkiok jatorrikideak izan litezke ²⁷.

-oa:

Mutiloa, Mutiloagaña.

Mitxelena-ren arabera zenbait kasutan *ola* ‘etxola’ ‘burniola’... ²⁸ izan daiteke, albokaria *-L* edo *-LL*-dun oinarriei lagun eginez joatearen ondorioz galdu delarik, *Mutiloa*-n adibidez. Hizkuntzalari gipuzkoarraren arabera, bada, *Mutiloa* ‘mutilaren edo morroiaren etxola nahiz burniola’ litzateke.

Azkueren ustez *-(k)oa* toki-izenetan ‘lurralde’ adiera duen atzizkia da: “Gure toponimian bertze anitz ta anitzen artean atzizki eder bat dugu, erderazko ‘territorio’ bezalatsu dena: Naparroa, Ainoa, Belarroa, Zuberoa, Ondarroa, Larrinoa, Garayoa, Ustoa, Arbeloa ta bertze zenbait izenen atzizkia. *Tz*-ri *oa* ezartzean *tz* gorrek *t* galdu ta *z*-ri datxikola *k* gelditzen da:

intromisión necesaria de *-eta* ante las desinencias casuales. Esto basta para explicar las variantes atestiguadas y, de paso, muchas otras alternancias: así que al lado de *Argongueta* (Art. 94) pueda haber un (*Sancho*) *Argonga* en Irache (307, 1218, Dicastillo, doc. original), lit. ‘cuenca(s), cuenco(s) de piedra’.

27. “Notas sobre los nombres de persona en la Navarra medieval”, PT, 127. or.:

“Cabe en lo posible que, en último extremo, tengan el mismo origen pues su distribución histórica es prácticamente complementaria (*-ko* ‘de’ no puede añadirse a nombres animados, con los que el hipocorístico tiene especial afinidad); en aquitano, por el carácter mismo del material, sólo parece documentarse, en abundancia, el último (txikigarria, alegia)...”.

28. L.M.ª MUJIKAREN, arabera *-ola* latineko *aulam*-etik atera dateke, *au*-ren monoptongaketa berantiarraren bitartez. Ikus “El euskara en la toponimia de Burgos”, *Iker*-6. Luis Villasanteri *omenaldia*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1992, 311-347. orr.

Ametz 'quejigo'tik *Amezkoa* 'territorio e quejigos' bezala, *Aetz* ta *Giputz* eta *oa* gontatik *Aezkoa* ta *Gipuzkoa* sortu zaizkigu²⁹.

-oki, -toki:

Erletokieta.

Atzizki hau berria bide den *Erletokieta* toki-izenean baizik ez da azaltzen. Jakina denez, egungo egunean *toki* 'lekua', 'tegia' adiera duen berezko hitza da³⁰, baina Mitxelenaen iritziz *-oki*-tik elkarketan sortu den aldaera sekundarioa izan liteke (*-egi* / *-tegi* bezala).

-so:

Beloso.

Mitxelenaen arabera zenbait alditan gutxienez *-so* atzizkia *-tsu*, *-zu*-ren aldaera dugu (*Itsaso*-n esaterako)³¹, eta hau da zalantzarik gabe beste herri batzuetako *Belosu*, *Elosu*, *Eloso* -ren baliakidea den *Beloso*-ren kasua.

-tu:

Biritxitu.

Hizkuntzalari errenteriarra(dioenez³² bukaera hau ohizkoa dugu toponimian. Kasu batzuetan euskaraz partizipioak sortzeko ibiltzen den jatorri latinoko *tu* atzizkia da (cf. kantatu, laburtu...), baina gure iritziz ez dago bat ere garbi hau ote den *Biritxitu* toki-izenean azaltzen dena.

-tze, -tza:

Ardantzearte, Euntze, Liatzeta...

Mitxelenaen iritziz ez dago argi *-tze* eta *-tza* (< *-zaha*)³³ atzizki ber baten aldaerak diren ala atzizki bana. Hizkuntzalari gipuzkoarrak dioenez aldizkatzea hitz berean gauzatzen denean *-tze* ekialdekoa da eta *-tza* mendebaldekoa (*baratze* / *baratza* adibidez). Iruñean, geografikoki dagokionez³⁴, *-tze* da gehien azaltzen den aldaera.

-As, -az... bukaerez mintzatzean ikusi bezala toponimo batzuek *-tze* atzizkiaren bokala galtzen dute, eta *-z* hutsarekin dokumentatzen dira. Hau da

29. "Aezkera edo Petiriberro-inguruetako mintzaera", *Euskera*, 1927, Bagilla-Lotazilla, 179-300. orr.

30. Axularren *Gero* liburuan azaltzen da. Ikus FHV, 218 eta 250. orr.

31. AV, 545. sarrera.

32. AV, 561. sarrera.

33. Donemiliagako "Reja" delakoan dokumentatzen da. Ikus TAV, 29. or.

34. Iruñea bere ezaugarriengatik ekialdekoztat jo behar den hegoaldeko goi-nafarrera mintzatzen zen eskualdearen barruan dago. Ikus *Carte des sept provinces basques*, L. Lucien Bonaparte, Londres, 1863.

esaterako *Elorz* haran eta ibai izenaren kasua, jakina denez *Elortze* (*elorri* + *-tze*)-tik heldu baita (*Elorçe ibar* dugu 1095ean³⁵), bai eta *ola* + *-tze*-tik³⁶ atera den *Olatz* eta *Olatz Txipia*-renaere.

-une, -gune:

Kapanagunea.

Atzizki honek 'tokia', 'lekua' adierazten du, eta azken bokala galdu duen *-un* aldaera ere aurkezten du (cf. *-tze* / *-tz*). Nafarroan, gainera, *-gue* dugu (*-kue* txistukari ahoskabe ondoan), bokalarteko *n*-ren erortzeaz (*Etxague*, *Egozkue*, *Leazkue*, *Olague*...). *Kapanagunea*, hortaz, 'kapana-tokia' edo da.

-zio:

Cruz de Barkazio.

Hau erdarazko *-ción* bukaera ezagunetik hartu du euskarak. Villasante-
ren arabera³⁷ jatorri horretako hitzekin erabili ohi da, baina erdaratikakoak
ez direnekin ere aurkitzen dugu. Gure kasuan oinarria *barkatu* aditza da,
alegia, 'barkazioaren gurutzea' dugu.

-zu:

Arrizua (?), *Legar(r)ai(t)zu* (?).

Ugaritasunezko atzizki hau berriagoa den *-tsu*-ren kidekoa da. Azken
hau aztergai dugun *-zu*-tik atera da, *satsu* (< *sats* + *-zu*) 'zikin' bezalako hitz
eratorrietatik abiatuta. Toponimian *-zu -tsu* baino anitzez arruntagoa da, eta
honek lehen aldaera horren lehenatasuna baieztatzen du³⁸. Ez dago zeharo
garbi Iruñean azaltzen den ala ez, dauzkagun bi toponimoak aski zalantza-
koak direlako.

2. Erdal generikoak eta euskarazko baliakideak

Iruñeko toponimian edireten ditugun erdal generikoak hauek dira:

35. TAV, 41. or.

36. *Tza*-tik ere atera zitekeen (cf. *Olatzagutia*, *Holaçagutia* 1268an, *Olacegutia* 1366an. NHI, 82. or.), toponimian *-e*-ren erortzea *-a*-rena baino arruntagoa dela irudi badu ere. Mitxelenak dioenez, zenbait kontsonante-multzoren ondoko *-e*-ren galtzea erdarari egokitzearen emaitza izan daiteke. Ikus "Notas sobre las lenguas de la Navarra medieval", PT, 73-85. orr.

37. *Palabras vascas compuestas y derivadas*, Editorial Franciscana de Aranzazu, Oñati, 1974, 141. or.

38. MICHELENA, "Toponimia, léxico y gramática", FLV, 191, 3, 241-267. orr., berriz ere PT, 141-167. orrialdeetan argitaratua.

Alto:

Alto de Argarai, Alto de Beloso, Alto de Donapia...

Erdarazko *alto* euskaraz *-buru*, *-ko buru*, *-gaña*, *-ko gaina* izan ohi da³⁹. Iruñeko toponimian erabiliena *gaina* da, zuzenki oinarriari itsatsia, alegia, beste toki batzuetan azaltzen den leku-denborazko genitiboaren morfema gabe: *Argaraigaña, Belosogaña, Donapiagaña...*

Arbolado/Arboleda:

Arbolado del Camposanto, Arboleda del Sadar...

Jakina denez, euskara batuaz kontzeptu hau bideratzeko *zubaizti* (< *zuhaitz* + *-di*) erabili ohi da. Hau arrunta izan bide da Nafarroako toponimian: cf. *Zuasti* Itza eta longidan, *Zuaztoi* Azpilkuetan, *Zubasti* Lantzen⁴⁰, *Zuazti* Puiun⁴¹, *Zuaztia* Orizin⁴² eta Olkotzen⁴³... Antza duenez, ideia bera *Zuatzu* (< *zuba(i)tz* + *-zu*) eta *Zuatzu* (*zuba(i)tz* + *-za*)-ren bitartez adierazi da (cf. *Zuhatzu* Arakil eta Itzagaondoan⁴⁴).

Nafarroako egungo euskararen ordea, izenik erabiliena *arbola* da⁴⁵, eta erdarazko *arbolado*, *arboleda*-ren baliakidea *arboldegie* (Lakuntza), *arboladie* (Leitza)... Elkanoko Lizarragak *arbola* eta *arboledia* ibiltzen ditu⁴⁶, azken hau *arbole*-tik datorrela, ez *arbola*-tik (cf. Esteribarko *arboleák* eta Bidankozeko *arbole*)⁴⁷.

Arrabal:

Arrabal de Arrotxapea.

Euskaraz *arrabala*, *arrebala* edo *errebala* erabili eta erabiltzen dira. N. Janduchioken hiztegian, kasu, *errebala* dugu (DLC, 64.or.); Toribio Etxebarriak ere *errebala* ematen du Eibarrerako (FVYL, 327.or.), eta Bidankozen

39. Beste izen batzuk ere azaltzen dira, hala nola *kazkoa*, *kaxkoa*, *ttonttorroa*, *bizkarra*...

40. ELEIZALDE, LVTV.

41. 1628an dokumentatzen da. PRA-Barasoain, 5. k.

42. 1557an. Id., 2. k.

43. 1627an. PRA-Kaparroso, 3. k.

44. Ikus IRIGOIEN, A., ETTVCP, 10. or.

45. Ikus EAEL, 73. sarrera. *Arbol*, *arbole*, *zuaitza*, *zuaizte* eta *zugaitza* ere biltzen ditu lan honek. Ikus, orobat, "Un vocabulario aezcoano, salacenco y roncalés", SHLV-I, 298-319. orr.

46. "Emén in azároa, án gozátu eraicioa: emén picorrbat, án árbola andibát..." (UIGPL, 75. or.), "ezperén oroát leique errán, madarik(atu)a súa, cerén onéqui erretzendiren echea ta arbolediac..." (UIGPL, 71. or.).

47. ARTOLA, K., "Hegoaldeko goi-nafarreraren azentua dela-eta (hurbiltze-saiakera)", FLV, 1992, 60, 187-227. orr. eta Estornés, J. "Mendigatxa'k Azkueri kartak, 1902-1916. Eta Errokariko Uskaratik utzulpen ta goarpenak", FLV, 43, 1984, 55-127. orr.

arrebalak esaten zen (“Mendigatxa’k Azkueri...”, 82.or.). Toponimian sarritan honen irudikoa dirudien *Iriondoa* (*corsera*?) edireten dugu.

Barranco:

Barranco de Biritxitu, Barranco de Donapia.

Honen euskarazko errankidea *erreka* da, gutxienez Nafarroako zati batean. Izen honen adiera toki batetik bestera aldatzen da, ‘erretena’-tik ‘ugaldea’-raino doalarik, ‘lats’, ‘errekasto’ eta antzekoetatik igaroaz. Iruñerrian *erreka* ‘acequia’⁴⁸, ‘regata’⁴⁹, edo ‘regacho’⁵⁰ izan ohi da.

Erreka-z landara antzeko esanahia duen *erregua* ere aurkitzen dugu alderdi honetan (cf. *Erregu urrutia* Erieten⁵¹, *Gesalerregua* edo *Gasalerreka* Galar-Gezen⁵²), eta Nafarroan barrena arruntak dira ‘barranco’, ‘acequia’ esanahia duen *hodia* izena, eta adiera horretatik hurbil egon daitekeen *sakana*.

Barrio:

Barrio de Arrotxapea, Barrio de la Magdalena...

Euskaraz jakina denez ‘barrio’ *auzoa* izan ohi da (cf. *Auzoberri* Lesakan, *Balkezauzoa*, *Itzeauzoa...* eta beste Beran⁵³), baina han-hemenka *auzune*, *auzoarte*, *auzoera* eta *auzotegi* eratorriak ere azaltzen dira⁵⁴.

Basilica:

Basilica de la Magdalena, Basilica de San Jorge...

Erdarazko *basilica* hitzak bi adiera nagusi ohi ditu: ‘eliza’ eta ‘ermita’. Bigarren hau da toponimian gehienetan duena, eta honelakoetan euskaraz *ermita* (cf. *Ermitagaña*) izaten da, baina baita *eliza*, *elizatto*⁵⁵, *elizatxo*⁵⁶, eta *elixatto*⁵⁷ ere.

Batán:

Cerro batán de Barañáin.

Nafarroako euskaraz *batán* ‘larruak kolpatzeko errota’ *errota* esan izan da. Izen honek ezaguna denez ‘alea ehotzeko tresna’, ‘delako tresna hori

48. TCPCC, 98. or.

49. TCPCG, 265. or.

50. TCPCI, 187. or.

51. TCPCC, 254. or. Ikus gure IGI, 67. or.

52. TCPCG, 342. or.

53. ESPARZA, “De toponimia navarra”, *Príncipe de Viana*, 94-95, 1964.

54. Ikus DIMV, 48. or., eta OEH, *auzo* sarrera.

55. Morionesen. NEEATB.

56. SARASOLA, HLEH.

57. Berriobeitin. Ikus TCPCA, 209. or.

dagoen etxea' esanahia ere badauka. Iruñean *errota* osagaia duten *Errotaldea*, *Errotazar* eta *Errotazelaia* toponimoak ditugu, eta hauekin batera *errota*-ren errankidea den *eibera* ere aurkitzen dugu, *Laureiereta* toponimoan.

Borda:

Borda de Aitzoain, Bordas de Buztintxuri...

Euskaraz ere *borda* aurkitzen dugu maiz, 'aziendentzako estalpe edo gortea' adieraz, *etxola* 'artzaintzako txabola. Udako lanek iraun bitartean familia bizi ohi den mendiko etxea'-ri kontrajartzen zaiolarik⁵⁸. Iruñean *Bordaldea* toponimoan edireten dugu euskaraz erabilia, eta Iruñerrian oso arrunta da, *korral(e)a* eta *gortea*, *kortea* bezala.

Cadena:

Cadena de Miluze, Cadena del Sadar, Cadena de Santa Engracia.

Ez dakigu euskarazko *katea-k* erdarazko *cadena-k* izan dezakeen 'fielato' adiera inoiz izan ote duen. Larraun-Etxarrin *Katebide* dugu, baina ez dakigu zeri zor zaion toki-izena.

Camino:

Camino de las Abejeras, Camino de Argarai...

Euskarazko ordainik arruntena *bidea* da ezbairik gabe. Hau eskuarki oinarriari zuzenean erantsia aurkitzen dugu (cf. Aratzuriko *Irunbidea*), eta hau da, izan ere, Iruñean dokumentatzen den lotura bakarra: *Larrabide*, *Orkoienbidea...*

Zenbaitetan, baina ez Iruñean, adatiboaren laguntza ohi dauka dokumentazioan: cf. *Mutiloara bidea* edo *Mutiloabidea* Ezkirotzen⁵⁹, eta egungo egunean oinarriari leku genitiboaren bidez lotzeko joera dago (cf. *Petxiburuko bidea* Goizuetan⁶⁰).

Iruñerrian *bidea* batzuetan erdaratikako *kamio*-rekin aldizkatzen da, eta horrelakoetan bide garrantzikoak ematen ditu aditzera (cf. *Tuterabidea* edo *Tuterakamio* Ezkirotzen⁶¹), eta beste batzuetan *senda*-rekin, bide mehar-estuak adieraziz (cf. *Zarikaisenda*, *Zarikiiegibidea* eta *Zarikiiegibidesenda* Azterainen⁶²).

Erdarazko *camino*-rekin zerikusia duten euskarazko izenen artean *errepi-dea* (< *errege* + *bidea* 'camino, carretera real') eta *galtzada* (< *calzada*) ere

58. OEH.

59. TCPCG, 229. or.

60. ECHEVERRÍA SALAVERRÍA, L.F., "Goizuetako toponimia, Artikutzakoa ezik", FLV, 51, 1988, 77-118. orr.

61. TCPCG, 236-237. orr.

62. TCPCC, 111-112. orr.

aipa daitezke, bai eta orobat, adiera ezberdinak izan ditzakeen *estrata*, *estarta* edo *estrada* ere (cf. Saratsako *Estrada*)⁶³.

Campo:

Campo de la Taconera.

Gaztelaniazko *campo*-k ordain bat baino gehiago dauka euskaraz: *alorra* (cf. *Alorrondo* Iruñean, *Alorluzea*, *Alormearra*... Itza zendea, *Alormakurra*, *Alorzuloa* Galar zendea...), *soroa* (cf. *Soroandiet*a Burlatan⁶⁴, *Elizasoroa* Elkanon⁶⁵...), *landa*⁶⁶, *elkea* (cf. Antsoain zendeako *Elkarte* herria, edo Eguesibarko *Elkano*), bai eta, behin edo beste, erdaratikako *kanpo* bera ere (cf. *Kanpozelaia* Artikan⁶⁷).

Canal:

Canal de Biritxitu, Canal de Ezkaba.

Euskaraz Iruñean *Kanalea* erabili izan da, baina izen hau beste toki batzuetako *Kanala*-rekin⁶⁸ *Aranea* / *Arana*, *Zabalea* / *Zabala*... pareak dauden erlazio berean egon daiteke.

Cantera:

Cantera de Ezkaba.

Euskarazko ordaina Iruñerrian makina bat aldiz aurkitzen dugun *harrobia* (< *harri* + *hobia*) da (cf. *Arrobialedea* Antsoainen⁶⁹), jakina denez.

Carrera:

Carrera de Santa Cruz.

Carrera izena, aldaera duen *carra* bezala, Nafarroako eskualderik erroma-

63. TCPCI, 331. or.

64. ETB, 91. or.: "Piezas en Soro andieta afrontadas con camino que van de Huarte a Mutiloa".

65. APECECHEA, J., "Inventario de los bienes de la casa nativa de Joaquín de Lizarraga", FLV, 22, 1976, 77-93. orr.: "Ytem otra (pieza) de tres quartaladas en el paraje llamado Elizasoroa, afronta con piezas de Artaizena y Gorraizena".

66. Iruñean izen honek beste toki batzuetan duen 'vega' esanahia izan lezake, *Landaben* dermioa Argaren ertzean barrena luzatzen denez gero, bai hiriburuan eta bai aldameneko herrietan. Gainera, bestalde, *Azellalanda Río de Azella* delakoaren ondoan egon zitekeen.

67. TCPCA, 170. or.

68. Mugiron dugu bizirik Nafarroan. Araban *Kanala* biltzen du López de Gereñuk (*Toponimia alavesa seguido de mortuorios y despoblados y pueblos alaveses*, Euskaltzaindia, Bartzelona, 1989, 140. or.), eta *Kanalarte* Eleizalde (LVTV). Elkanoko Lizarragak, alabaina, *kanale* erabiltzen du, zentzu metaforikoan bada ere: "Dire gra(ci)aren zázpi *canále*, edo instrum(en)tu becála; nolaco óncia damázun, alá atracodúzu", UIGPL, 110. or. Goizuetan ere *kanale* daukagu, *Kanale tikiko lepoa* toponimoan (Luis Fdo. Echeverría, aipatutako lana, 109. or.).

69. TCPCA, 73. or.

nizatuenetan agertu ohi da, Tafallatik beheiti ⁷⁰, eta euskarazko *bidea* edo *kamioa*-ren baliakidea da.

Carretera (real):

Carretera real del Castillo, Carretera de la Longaniza.
Ikus *Camino*.

Casa, caserío:

Casa de Beloso, Casa de Landaben, Caserío de Landaben...
Euskaraz ezaguna denez *casa*-ren baliakidea *etxea* da: cf. *Etxalde, Etxe-
goien, Etxondo...* Iruñean berean.

Cascajera:

Cascajera de Argarai.
Han-hemenkako erdarazko *Cascajera, Cascajo(s), Cascajal* eta *Cascajar*-en aldamenean *Kaskallua, Kaskalludia, Kaskallugunea, Kaskallueta...* edireten ditugu euskaraz. Antsoain zendea, esate baterako, honako hauek ditugu, besteak beste: *Kaskallu, Kaskallueta, Kaskallugaña, Kaskallugunea, Kaskallukoa...* ⁷¹.

Castillo:

Castillo de San Cristóbal.
Jakina denez euskarazko baliakidea *gaztelu* ezaguna dugu. Iruñerrian Asiaingo *Gazteluzar* eta *Gazteluzarrondo*-n aurkitzen dugu ⁷².

Cerro:

Cerro batán de Barañáin, Cerro de la Cuesta de la Reina...
Ikus *Alto* sarrera.

70. Ikus THET, 72-73. orr.

71. TCPA.

72. TCPCO, 99. or.

Convento:

Convento de San Pedro, Convento de Santa Engracia.

Euskarazko ordaina *komentu* da Azkue⁷³ eta Sarasolaren⁷⁴ arabera. Aldatzen -o-dun aldaera dugu *Komentope* edo *Komentoazpi* toki-izenetan.

Corraliza:

Corraliza de Antsoain, Corraliza de Barañáin...

Ez dakigu zein izan den euskarazko kidea. Agian *korrale*, *gortea* edo oso zabaldua dagoen *sario*-z pentsatu behar genuke, hau batzuetan erdarazko *sel* edo *majada*-ren ordaina izaten baita, alegia, etxola, artegia eta ondoko lurrak adierazten baititu. *Larratz(e)a*-k ere zerikusia izan lezake *corraliza*-rekin.

Costalada, costalado:

Costalado de Aizagerrri, Costalada de Donapia...

Euskaraz *saihetsa* posposizioa erabili izan da. Iruñean, halaz ere, *Erlategi-saetsa*-z besterik ez dugu. Erdarazko esanahi bereko *costera* ere aurkitzen dugu *Kosterapea* hibridoan. *Aldapa* eta *malda* ere ibili izan dira antzeko adieraz, besteak beste.

Cruz, crucero:

Cruz de Barkazio, Cruz de Beloso, Crucero de la Cruz negra...

Nafarroan *gurutze* da erdarazko *cruz*-en kiderik hedatuena, bestelako aldaerak ere (*kurutza*, *krutxe*...) agertu arren. Iruñean *Gurutzetxuria* 'La Cruz blanca' dugu, eta Iruñerrian makina bat dira osagai hori duten toki-izenak. Juan de Beriain eta Elkanoko Lizarragak ere *gurutze* erabiltzen zuten, eta Iberoko gurutzebidean⁷⁵ ere forma hau azaltzen da.

Cuesta:

Cuesta de Beloso, Cuesta de Lezkairu.

Euskaraz *saihetsa* (ikus gorago), *aldapa* (cf. *Aldapa* 1884ean Iruñean be-rean), *malda*⁷⁶ (cf., adibidez, *Maldandieta* Arlegin, *Maldandia* Beriainen⁷⁷),

73. DVEF.

74. HLEH.

75. ARRAIZA FRAUCA, J., *Ibero. Viacrucis en bascuence de comienzos de siglo XIX*, FLV, 51, 1988, 143-154. orr.

76. Hitz hau Iruñerrian eta beste leku batzuetan 'malda' ezezik, 'sasia' ere izan daiteke.

77. TCPCG, 55. eta 100. orr.

eta *aldaia* (cf. *Aldaia*, *Aldaiekoa* Berriobeitin ⁷⁸, *Aldaia* Eritzebeiti, Otxobi ⁷⁹, eta Orkoien ⁸⁰...) ibili dira, besteak beste direla.

Era:

Era de los Carmelitas descalzos.

Euskarazko ordaina *larraina* ezaguna da. Iruñean *Larraintxiki* eta *Kordobalarraña* dauzkagu, eta Iruñerrian asko dira izen hau duten toponimoak.

Ermita:

Ermita de San Antón, Ermita de San Jorge...

Ikus *Basilica*.

Explanada:

Explanada de Arrotxapea, Explanada de Sanduzelai...

Erdarazko *explanada*, *llano*, *llana* (*plano*, *plana*)-ren euskarazko baliakideak *zabala*, eta *zelaia* ohi dira, azken hau erdarazko *playa* 'ibai ondoko ordoki langarria' ⁸¹-ren kidea ere badelarik: *Antsoainzelaia* = *Playa de Antsoain*; *Barañainzelaia* = *Playa de Barañáin*, *Llana de Barañáin*...

Ezpuenda:

Ezpuenda de Biritxitu.

Euskarazko baliakidea latineko *spōnda*-tik hartu den *ezponda* dugu, eta honen aldaerak diren *extonba* eta *extoma* ⁸².

Fábrica:

Fábrica de la Magdalena.

Euskaraz 'fabrica' esateko bestelako esanahiak ere badituen *ola* ibili izan da (cf. *Fábrica de Orbaitzeta / Orbaitzetako ola*).

78. TCPCA, 201. or.

79. TCPCL, 148 eta 245. orr.

80. TCPCO, 258. or.

81. Ikus VN.

82. Ikus gure IGI.

Facería, Facero:

Facería de Antsoain, Facería con Aratzuri...

Euskaraz batez ere erdaratikako *fazeria, fazeroa, pazeria, pazeroa* eta *plazeria* ibili izan dita: Zizur zendean, esaterako, *Fazeriabizkarra, Fazeriagoiti, Fazeria-legarreta...* eta beste ditugu ⁸³. Azkuek bere hiztegiaren eraskinean Ultzamako *elkarkikoa* biltzen du adiera honekin.

Fortín:

Fortín de San Roque.

Euskaraz *fortín*-etik hurbilen dagoena aipatu *gaxtelu* 'castillo' da, baina garbi dago hau ez dela izenburuko horren zeharo kidea. Hernanin *fuertea* dugu, *Santabarbarako fuertia* leku-izenean ⁸⁴.

Fuente:

Fuente de Azella, Fuente de Barañáin...

Euskarazko ordaina *iturri* ezaguna dugu. *Iturburu, Iturrama...*

Horca:

Horcas de Azella, Horcas de Miluze...

Euskarazko ordainak *urka, urkabe* eta *urkamendi* dira. Iruñerrian *Urkabetea* (hots, *Urkabedenea*) dugu Saratsan ⁸⁵, *Urkamendia, Urkamendigaña* eta *Urkamendiondoa* Asiainen ⁸⁶, eta *Urkamendia* Lizasoainen.

Hospital:

Hospital de Barañáin, Hospital de Iturriapurria.

Euskaraz *ospital(e)* erabili izan da: cf. *Ospitalbidea* Arlegin ⁸⁷, *Ospitalekoa* (etxea) Zizur Nagusian ⁸⁸. Nafarroa Beherean *ospitale* izen arrunta dugu ⁸⁹, eta Zuberoan *Ospitale* (Hôpital Saint-Blais) ⁹⁰.

83. TCPCC.

84. ZALDUA, L.M., eta DEL BARRIO, L., *Hernaniko udalerriko toponimia bilketa historikoa*, argitaratu gabeko (?) lana.

85. TCPCI, 350. or.

86. TCPCO, 111-112, eta 228. orr.

87. TCPCG, 50. or.

88. TCPCC, 212. or.

89. Salaberryren arabera (DBF).

90. DBF.

Huerta, huerto:

Huertas de Arrotxapea, Huerta de Barañáin...

Nafarroako alderdi gehienetan *baratze* ibiltzen da edo ibili da, eta eskualde batzuetan *baratza*. Iruñean ez da dokumentatzen, baina Kokoerrian *baratze* daukagu: *Baratzeondo*, *Baratzezar* Burlatan ⁹¹, *Baratzeaga* Añezkar-Oteitzan ⁹² eta Larragetan...

Iglesia:

Iglesia de Azella, Iglesia de San Antón...

Ikus *Basilica*.

Isleta:

Isleta de Arantzedi.

Ez dugu honen euskarazko baliakiderik ezagutzen.

Jardín:

Jardines de Taconera.

Jakina denez, euskara batuaz erabili ohi den hitza *lorategia* da, eta Iparraldean honen adierakidea den *lilitegia* ere badaukagu ⁹³. Toponimian, alabaina, erdarazko izenarekin estuki loturik dagoen *txardin* (< *xardin*) edireten dugu 1596ko Ihelzko *Chardin alorra*-n ⁹⁴ eta oraingo Azpako *Txardinalor*-en.

Lavadero:

Lavadero de la Magdalena.

Euskarazko ordainak *garbitegia*, *garbilekua* edo *garbitokia* dira, baina dakigula egungo egunean *labaderoa* mailegua ibiltzen da Nafarroako herri euskaldunetan.

Llana, llanada:

Llana de Ezkaba, Llanada de la Cruz negra...

Euskaraz batzuetan *zabala* da eta bestetan *zelaia* (ikus *Explanada* sarrera).

91. ETB, 50. or.

92. TCPA, 99. eta 337. orr.

93. HLEH.

94. PRA-Urrotz, 5. k.

Mojón:

Mojón de Artika, Mojón de Cordovilla...

‘Zedarrri’ adieraz euskaraz *mugarria* ibiltzen da eta ibili da Nafarroan, eta ‘udalerrri baten muga’ adieraz *muga*. Iruñean bertan *Mugarriluze* eta *Mugaluze* ditugu (azken hau oso berandukoa da), Burlatako eta Mutiloetako mugetako *Mugazuri*-z landara, eta Kokoan ere oso ugariak dira osagai hauek dituzten toponimoak. Inoiz edo behin *mojona* mailegua ere edireten dugu: *Mojo-nadena* Añezkar-Oteitzan ⁹⁵, *Mojonetan* Aritzen ⁹⁶.

Molino:

Molinos de Arrotxapea, Molino de Barañáin...

Ikus *Batán* sarrera.

Monasterio:

Monasterio de San Pedro, Monasterio de Santa Engracia.

Euskaraz gaurregun ibiltzen den izena *monastegia* ezaguna da, baina ez da, dakigula, toponimian azaltzen. Hurbilen dagoena gorago aipatu *komentua* da ⁹⁷.

Monte:

Monte de Ezkaba.

Monte-ren euskarazko ordainen artean *mendi* (‘gaina’ eta ‘mendizerra’ ere izan daiteke) eta *oihan* (*oibar*-, *ollar*- elkarketan) ‘zuhaitzun mendia’ ditugu.

Muralla:

Muralla de Arrotxapea.

Euskara batuaz *harrisia* ibili ohi da, eta gutxiago *murraila* mailegua. Nafarroako toponimian esanahi bereko erdarazko *cerco*-tik harturikako *zerkoa* aurkitzen dugu: Artaxonan, adibidez, *Zerkondoa* toponimoak hiria ingu-

95. TCPCA, 129. or.

96. TCPIC, 95. or. Hau notariaren itzulpena dela dirudi, euskararen errotoetako izena baino gehiago, baina hau ezin segurta daiteke.

97. Beriaynek *monesterio* darabil behin: “Victoriaco monesterioco fraylen demboran contacenda exemplo bat...”, TCOM, 110. or. Gaztelaniaz ere arrunta zen garai batez *monesterio* aldaera, eta hemendik hartu bide zuen autore honek.

ratzen duen harresiaren ondoa ematen du aditzera, eta Zaren 1733an azaltzen den *Zerkoa* leku-izenak antzerako zerbait adierazi behar zuen ⁹⁸. Oibarren gaurregun *El Cerco* edo *El Barrio del Cerco* dugu eliza aldean.

Mitxelena Tolosako *Cercalde* eta *Zerkausi* toponimoak biltzen ditu, eta Landuchioren hiztegian oinarri harturik (*çerquea* ‘cerca’ dakar) *zerka* ‘cerca, muralla’-ren bitartez azaltzen ditu.

Parque:

Parque de Taconera, Parque de la Tejería...

Izen berria da hau, eta ez du, dakigunez, ordainik euskal toponimian. *Parkea* irauli ohi da euskarara.

Paseo:

Paseo del Camposanto.

Nafarroako toponimia euskaldunean honen kidekorik ez dago, guk dakigula bederen. Bizkai eta Gipuzkoako zenbait alderditan *pasealekua* izen arrunta erabiltzen omen da ⁹⁹.

Pedrera:

Pedrera de Ezkaba.

Euskarazko ordainak *barridi* (edo *hardi*), *barridui* edo *barridoi* (*hardoi*) dira, eskualdeen arabera, bai eta *harritze* edo *harritzea* ere ¹⁰⁰.

Playa:

Playa de Antsoain, Playa de Arrotxapea...

Ikus *Explanada* sarrera.

Plaza:

Plaza de Errotazar.

Azken urteotan *enparantza* izugarri ugaldtu den arren, euskarazko kide jatorra *plaza* dugu.

98. NEEATB.

99. Ikus *I Jornadas de Onomástica. Toponimia, Vitoria-Gasteiz, abril de 1986*, 343. or.
100. Sarasolak HLEH-n *hardi* eta *harrieta* biltzen ditu, eta Mitxelena (OEH) aurrekoen gainera *harriaga* edo *arraga* eta *harritegi* ere badakartza. Nafarroako toponimian oso ugaria da *Ardui*, baina ez, dakigula, *Ardi* (honetaz ikus gure DAON).

Poblado:

Poblado de Santa Lucía.

Izena (eta honek adierazten duen errealitatea) berria da, eta ez du euskarazko baliakide zuzenik.

Pontarrón:

Pontarrón de San Jorge.

Izen honek zubi txikia eta arta handirik gabe egindakoa adierazten du ¹⁰¹. Euskaraz *Zubingoa* edo *Xubingoa*, *Zubindoa* edo *Xubindoa* ¹⁰² (> *Txubindoa* sarri), *Xubinttoa*, *Xubikoa* ¹⁰³, *Xubittoa* ¹⁰⁴ eta beste ditugu.

Portal:

Portal de Arrotxapea, Portal de García Marra...

Euskaraz *portalea* aurkitzen dugu toponimian: Iruñerrian, adibidez, *Portalepea* etxea dugu 1837an Muru-Azterainen ¹⁰⁵, *Portalekoa* Ezkirotzen ¹⁰⁶. Iruñean, antza denez, *portale* eta *atari* 'atea'-k esanahi diferentea daukate.

Portazgo:

Portazgo de Santa Engracia.

Ikus *Cadena* sarrera.

Pradillo:

Pradillo de las Abejeras, Pradillo redondo de Azella...

Euskarazko ordainak bat baino gehiago dira: Iruñean *euntze txikia* dugu *Pradillo de Euntzetzikia* toponimoan, Ororbía ¹⁰⁷, Galar ¹⁰⁸ eta bestetan *Euntzettoa* aurkitzen dugu, eta Zizur Txikian ¹⁰⁹ eta Aldaban ¹¹⁰ *Euntzekoa*.

101. Ikus VN eta THET, 160. or.

102. Saratsan adibidez. TCPCI, 325. or.

103. Galar-Ezkirotzen, esaterako. TCPCG, 235. or.

104. Leten, kasu. TCPCI, 237. or.

105. TCPCC, 376. or.

106. TCPCG, 243. or.

107. TCPCO, 292. or.

108. TCPCG, 267. or.

109. TCPCC, 228. or.

110. TCPCI, 53. or.

Prado:

Prado de Antsoain, Prado de Arrotxapea...

Euskarako baliakideak franko dira. Iruñean eta Iruñerrian ¹¹¹ ‘zaldu’ adiera ere izan dezakeen *euntze* edireten dugu, eta honekin batera *larrea* ezaguna (cf. *Prado de Irunlarrea, Iruñeuntze...*).

Presa:

Presa de Biurdana.

Euskarazko ordainak bat baino gehiago dira oraingoan ere. Ezagunenen artean *ubarka* (< *ur* + *arka* ‘arca, arcal, presa’. *Ugarka* eta *Ubarka* aldaerak ere oso arruntak dira toponimian) eta *presa* ditugu, Iruñean dokumentatzen ez diren arren. Kokoan adibidez *Uarka*, *Uarkagaña* eta *Uarkaondo* ditugu Berriogoitin ¹¹², *Ubarka*, *Ubarkaondo*, *Ugarkaldea* eta beste Zizur Txikian ¹¹³... *Presa* Muru-Azterainen dokumentatzen da, *Presaondo* toponimoan ¹¹⁴.

Puente:

Puente del Abrevador, Puente de Arrotxapea...

Euskarazko baliakidea Iruñeko bereko *Zubipunta* toponimoan aurkitzen dugun *zubi* ezaguna da.

Puerta:

Puerta de San Nicolás.

Ikus *Portal* sarrera.

Puyo:

Puyo de Ezkaba.

Euskaraz *poi*u edo *pui*u dugu Undioko *Poiugaña* edo *Puiugaña* toponimoan ¹¹⁵. *Puio* eta *boiu* (< *pödiu*) aldaerak ere dokumentatzen dira han-he-

111. Hemendik kanpo ere bai, jakina, baina gu, ahal dugularik, eskualde honetara mugatzen gara. *Prado*-ren euskarazko baliakideez ikus Ana M.^a Echaideren *El euskera en Navarra: Encuestas Lingüísticas (1965-1967)*, *Eusko Ikaskuntza*, Donostia, 1989, 102. or.

112. TCPA, 259. or.

113. TCPCC, 238. or.

114. TCPCC, 367 eta 380. orr.

115. TCPCC, 447. or.

menka, azkenak, ikus daitekeenez, euskaraz arrunta ohi den herskari ahostuna duela.

Rincón:

Rincón de Biritxitu, Rincón de Iturrama.

Euskaraz *zokoa* izaten da erdarazko izen horren ordaina. Iruñean ez da agertzen, baina Kokoan esaterako *Zokoa* dugu Añezkar eta Ballariainen ¹¹⁶.

Río:

Río Arga, Río de Azella...

Nafarroan ubide garrantzizkoak izendatzeko hitzik arruntena Elkanoko Lizarragak gehien (?) ibiltzen duen *ugaldea* da edo izan da, zenbait lekutan (Burundan, adibidez) *ibaia* ere erabiltzen den arren. *Erreka* toki guztietan ezagutzen da, baina oso adiera ezberdinak izan ditzake, tamainari dagokionez (ikus *barranco*).

Ripa:

Ripa de Beloso, Ripa de Donapia.

Euskarazko ordaina erdal izena bezala latineko *ripa*-tik atera den *erripa* da. Iruñean *Erripabe, Erripaburua...* eta bestetan aurkitzen dugu.

Ronda:

Ronda de Ermitagaña.

Euskal toponimian ez du izan, dakigula, baliakiderik.

Senda, sendero:

Senda de Donapia, Sendero de Ermitagaña...

Ikus *Camino*.

Soto, sotillo:

Soto de Aitzoain, Soto de Azella...

Euskarazko ordainik arruntena jatorri bereko *zaldu* (< saltu) da, baina *soto, sauto* edo *xautu...* eta beste ere azaltzen dira toponimian. Iruñetik atera

116. TCPA, 146. eta 196. orr.

gabe *Zaldurrutia* eta *Zalduzarra* ditugu. Gorago esan moduan, *euntze*-k ere batzuetan ‘zaldu’ adiera izan dezake Kokoerrian.

Tejería:

Tejería de Arrotxapea, Tejería de Beloso...

Euskaraz *Telleria* eta honen aldaerak (*Tellaria, Tellegi...*) edireten ditugu. *Telleria* oso ongi dokumentatua dago Iruñerrian: Antsoaingo zendean adibidez Artika, Berriozar eta Elkartan aurkitzen dugu ¹¹⁷.

Término:

Término viejo de Artika, Término del Rey.

Euskaraz *dermioa* esaten da, nahiz toki batzuetan hitz honek bestelako adierak badituen. Bruno Etxenikerentzat ‘udalerría’ edo antzeko zerbait zen ¹¹⁸ eta A. Irigoien eta Mitxelenaren arabera *dermio* ‘término’ da ¹¹⁹. Arantzen ‘herritik urruti samar dagoen lantze-lurra’ da ¹²⁰. Burundan ‘basoa ez den udal-lurraldea’ ¹²¹, eta Baztanen halako etxe baten belagi, landa eta iralarreak. Goizuetan, azkenik, ‘término, paraje’ dugu, besteak beste.

Iruñerrian Eritzeko lurrekin muga egiten zuen *Erizeco terminioa* izeneko parajea dokumentatzen da 1599an Otxobin. Izkuen *Dermio artea* azaltzen da 1589an ¹²². Burundan, Ameskoetan eta janan *dermaua* aldaera erabiltzen da edo erabili da (cf. zuberera zaharreko *termañi*, FHV, 303.or.).

Vado:

Vado de Caparroso.

Euskaraz *ur*-en eratorria izan daitekeen *ibi* (eta *ubi*) erabili izan da. Lapurteraz Mitxelenak dioenez *ibide* eta *ibiri* aldaerak ditugu ¹²³. Azken hau Iruñeko *Biritxitu* toponimoaren oinarrian egon liteke. Kokoan *ibi* bide dugu

117. TCPCA, 177, 295 eta 324. orr.

118. *Baztango euskalkiaz* (Bruno Echenique-k egindako itzulpenak Bonaparteren eskakizunez), P. SALABURUK, paratutako argitalpena, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1980, 40-56. orr. Leizarragak *aldiri* eta *comarca* ibiltzen ditu. *Testamentu berria*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1990, 286 eta 308. orr.

119. IG, 656, or., eta FHV, 303. or.

120. KARASATORRE R. eta bestek, *Etxarri Aranatzko Euskara eta Arañaz Elkarteko Hiztegia*, Altaffaylla Kultur Elkarte, Tafalla, 1991, 144. or.

121. IG, 656. or.

122. TCPCO, 163. or.

123. FHV, 76. or.

Ororbia izenaren oinarrian (*Orerivia* 1226 eta 1248an, *Oririuia* 1270ean ¹²⁴, *orein* + *ibi*-tik, Mitxelenaren ustez ¹²⁵).

Venta(s):

Ventas de Cordovilla.

Euskaraz *benta* mailegua erabili eta erabiltzen da adiera beraz. Iruñerrian, besteak beste, *Bentaberri* dugu Aitzoain eta Berriozarren ¹²⁶.

Vivero:

Vivero del Sadar.

Euskaraz toponimian oso arrunta den *mindegi* edo *mintegi* erabiltzen da. Kokoan *Mindegi* dugu Larragetan ¹²⁷, *Mindegi* eta *Mindegiendoa* Zizur Nagusian ¹²⁸, *Mintegi* eta *Mintegizarra* Eritzebeitin ¹²⁹...

Vuelta:

Vuelta de Arantzedi, Vuelta del Castillo.

Euskaraz *buelta* maileguak 'bihurgunea' esanahia dauka toponimian, alegia, erdarazko 'revuelta' ematen du aditzera (cf. *Bueltagunea* Eslaban ¹³⁰). Iruñeko karriken errotulazio berrian *ingurubidea* itzulia ageri da *vuelta*: *Vuelta del Castillo* / *Gazteluko ingurubidea*.

3. Euskarazko posposizioak eta berauen erdal baliakideak:

Iruñeko toponimian agertzen diren posposizioak honako hauek dira:

-Agerri, Agirre:

Aizagerria, Azellagirre.

Erdaraz *a la vista de, en vista de* ibili ohi dira euskarazko izenaren ordainetan: *En vista de Araneta, A la vista de Azella*. Olatz-Zubitza Berriai-

124. NHI, 155. or.

125. FHV, 486. or.

126. TCPCA, 43. eta 297. orr.

127. TCPCA, 355. or.

128. TCPCC, 200. or.

129. TCPCI, 163. or.

130. NEEATB.

nagerri oraindik ere bizirik dago, bere ordezkatzaila den *Cara Beriain*-en aldamenean ¹³¹.

-*Alde*:

Bordaldea, Larrealdea, Zizurtxikialdekoa...

Erdaraz *hacia, al lado de, junto a...* erabili ohi dira, azken hau maiz *-ondoa*-ren baliakidea bada ere: *Cerca de Antsoain, Junto a la muga de Antsoain...*

-*Aran*:

Azellarana, Kordobarana.

Erdarazko *valle, val*-en kidea izan ohi da, alegia, ubide baten aldamena adierazi ohi du; cf. *Río de Azella*-ren ondoan behar zuen *Azellarana* toponimoa.

-*Arte*:

Ardantzearte, Errekarte.

Posposizio honek goragoko eta beheragoko bi alderdien bitartea (cf. *Irigoien / Iriarte / Iribarren*) edo oinarrian azaltzen den izenak izendatu bi "izaki"-en bitartea ematen du aditzera (cf. *Errekarte* 'Erreka bitartea'). *Ardantzearte* bietako edozein izan zitekeen.

Nafarroako eskualde zabal batean (Kokoerria barne) *erte*a aurkitzen dugu *arte*a-rekin batera, honekiko txandaketan maiz.

-*Be, -pe*:

Argaraipea, Erripabe...

Erdarazko *bajo, debajo de*-ren ordaina da, eta Nafarroan hedadura txikiagokoa den euskarako bereko *azpia*-ren kidea. Erromantzez batzuetan latineko *sūb*-etik atera den *so*- aurkitzen dugu (cf. *Sopenas* 'harbe', 'haizpe' Galipentzun ¹³²).

-*Bitarte*:

Bidebitartea, Irunbitartea.

Bitartea artea-ren kidekoa da, honek bigarren adiera (ikus gorago) duenean. Honela bada, *Bidebitartea* bi bideren arteko alderdia da, eta *Irunbitartea* Orkoien eta Iruñearen artekoa. Erdarazko *entre*-ren baliakidea da.

131. TCPCG, 301. or.

132. NEEATB.

-Gain:

Argaraigaña, Belosogaña, Donapiagaña...

Esan bezala (ikus gorago), *gain*-ek 'alto, cabezo' adiera duenean oinarriari zuzenean loturik nahiz leku-genitiboaren morfemaren laguntzaz aurkitzen dugu, baina 'encima de' denean bikoiztasun hori deusezten da, aukera bakarra zuzeneko lotura delarik.

-Garate:

Barañaingarate.

Oso izen arrunta da toponimian, eta *ate* 'harrate'-ren bat dagoen gain edo muinoa adierazi ohi du. Txistukari ahoskabe ondoan herskari ahoskabea aurkez dezake.

-Gibel:

Sanantongibela, Santaengraziagibela.

Erromantzez *zaga* (cf. *çaga Miluze*) erabiltzen zen antzina, eta *tras, detrás de* beranduago. *-Bea / azpia*-ren kasuan bezala, hemen ere garbi esan daiteke *gibela* errankide duen *atzea* baino anitzez arruntagoa dela, baita eguneroko hizkeran *atzea* ibiltzen duten eskualdean ere.

Txistukari ahoskabe ondoan herskari ahoskabea aurkez dezake.

-Goien:

Etxegoien.

Goi-ren superlatiboa da hau, eta *etxe*-ri loturik doanean herri baten goreneko alderdian kokatutako etxea eman ohi du aditzera, *Goienetxea*-k bezala (cf., gainera, *Etxegaraia, Garaikoetxea, Goikoetxea...*). Iruñeko toponimoa, dena den, behin bakarrik dokumentatzen da, oso berandu (1884ean), eta beraz ez da oso fidagarria. *Goien* beste batzuetan *-arte* eta *-barren*-i kontrajartzen zaie, eta 'goreneko alderdia' adierazten du.

-Ondo:

Bentaondua, Erripaondo...

Erdarazko *cabe, junto a, al lado de*-ren baliakidea da. *-Aldea*-ren adieratik hurbil egonagatik badirudi esanahi ezberdina duela.

-*Saiets*:

Erlategisaetsa.

Generikoak aztertzean esan moduan, erdarazko *costalada*, *costalado*, *costera*... eta antzekoen kidekoa da toponimian, alegia, ez da *lado* izan ohi, *cuesta* (cf. *ladera*) baizik. Nafarroako eskualde zabal batean *-saietsa -saetsa*-rekin aldizkatzen da.

Zabal:

Idiazabal, *Larreaazabala*.

Generikoak aztertzean ikusi bezala, erdarazko *explanada*, *llana*, *llano*, *plana*, *plano*-ren baliakidea da, eta batzuetan *zelai*-rekin bat etor daiteke.

-*Zelai*:

Antsoainzelaia, *Barañainzelaia*...

Zabal-en errankidea izan daiteke, honek 'explanada, llana...' esanahia duenean. Alabaina, eta *zabal* ez bezala, erdarazko *playa*-ren baliakidea ere izan daiteke.

Lan honetan erabilitako laburduren azalpena:

AV: *Apellidos Vascos*, Koldo Mitxelena, Txertoa, Donostia, 1973.

DAON: "Do.i atizkiaren ondorengoak Nafarroan", Patxi Salaberrri, FLV, 57, 1991, 33-53. orr.

DBF: *Dictionnaire Basque-Français*, P. Lhande, Gabriel Beauchesne argitaratzailea, Paris, 1926.

DCECH: *Diccionario Crítico Etimológico Castellano e Hispánico*, J. Corominas, Madril, Gredos, 1984.

DLC: *Dictionarium Linguae Cantabrigiae (1562)*, Manuel Agud eta Koldo Mitxelenak paratu argitalpena, Donostia, 1958.

DEV: *Diccionario etimológico vasco*, M. Agud eta A. Tovar, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1989.

DVEF: *Diccionario vasco-español-francés*, R. M.^a Azkue, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1969.

DIMV: *Diccionario ilustrado de mitología vasca*, J.M. Barandiarán, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1972.

DRPLV-II: *De re philologica linguae vasconicae-II*, A. Irigoien, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1987.

EAEL: *Euskalerriko Atlas Etnolingüistikoa*, Aranzadi Zientzia Elkarte, Donostia, 1963 eta 1990.

EFP: *Euskal Fonologia: Palatalizazioa. Asimilazioa eta hots simbolismoa*, L. Oñederra, euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 1990.

EPB: *Éléments de Phonétique Basque*, H. Gavel, Miarritze, 1920.

ETB: *Estudio Toponómico de Burlada*, Jimeno Jurío, Burlatako Udala, Iruñea, 1991.

FHV: *Fonética Histórica Vasca*, Koldo Mitxelena, Seminario Julio de Urquijo, Donostia, 1977.

FLV: *Fontes Linguae Vasconum*.

FVYL: *Flexiones verbales y lexicón del euskera dialectal de Eibar*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1986.

IG: "Izen geografikoak", Alfontso Irigoien, *Euskera*, 33, 1988, 651-657.

IGI: "Izen geografikoen inguruan", Patxi Salaberri, *FLV*, 55, 1990, 65-71.

HLEH: *Hauta-lanerako euskal hiztegia*, Ibon Sarasola, Gipuzkoako Kultura, 1984az geroztik.

LVRLOCM: *La lengua vasca en relación con la antroponimia y otras cuestiones medievales*, Alfontso Irigoien Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteiz, 1983.

LVTV: "Listas alfabéticas de voces toponomásticas vascas", Luis de Eleizalde, *RIEV*, 1922-1936, *BRSVAP*, 1863-1964.

MV: *Morfología Vasca*, R. M.^a Azkue, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1969.

NEEATB: *Nafarroako Ekierdialdeko euskararen azterketa toponimiaren bidez*, Patxi Salaberri, argitara gabeko doktorego-tesia.

NHI: *Nafarroako herri izendegia*, Euskaltzaindia-Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1990.

OEH: *Orotariko euskal hiztegia*, Koldo Mitxelena, Euskaltzaindia-Desclée De Brouwer-Mensajero, Bilbo, 1987az geroztik.

PRA: Protokolo artxibategia.

PT: *Palabras y textos*, Koldo Mitxelena, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 1987.

TAV: *Textos arcaicos vascos*, Koldo Mitxelena, Minotauro, Madril, 1964.

TCOM: *Tratado de como se ha de oyr missa*, Iruñea, 1621.

TCPCA: *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Ansoáin*, Jimeno Jurío, Euskaltzaindia, Bilbo, 1992.

TCPCG: *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Cizur*, Jimeno Jurío, Euskaltzaindia, Bilbo, 1986.

TCPCG: *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Galar*, Jimeno Jurío, Euskaltzaindia, Bilbo, 1987.

TCPCI: *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Iza*, Jimeno Jurío, Euskaltzaindia, Bilbo, 1990.

TCPCO: *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Olza*, Jimeno Jurío, Euskaltzaindia, Bilbo, 1989.

TDI: "Toponimia, dialektologiaren ikerbide", Patxi Salaberri, *Naziorteko Dialektologia Biltzarra*, Iker-7, Euskaltzaindia, Bilbo, 1992, 619-645. orr.

THET: *Toponimia histórico-etnográfica de Tafalla*, Jimeno Jurío, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1989.

UGDEN: *Una geografía diacrónica del Euskara en Navarra*, Aingeru Irigaray, Ediciones y libros, Iruñea, 1974.

UIGPL: *Urteko igande guzietarako prediku laburrak*, Joakin Lizarraga, Euskaltzaindia, Bilbo, 1990.

VN: *Vocabulario navarro*, J. M.^a Iribarren, PV, Iruñea, 1984.

LABURPENA

Artikulu hau J. M.^a Jimeno Jurío bildutako materialetan oinarritua dago, eta ikerketa zabalago baten zatia da. Lanak hiru atal nagusi ditu: lehenean Iruñeko toponimian aurkitzen ditugun euskal atzizki eta atzizki ustezkoak azterzen dira; bigarrean hiriburuko toponimian azaltzen diren generiko erdaldunak zerrendatzen dira, eta berauen euskarazko kideak ematen, adibideak eta lekukoak bereziki Iruñeko eta Iruñerriko leku-izenetatik hartuak direlarik. Hirugarren atalean Iruñeko toponimoetan agertzen diren euskal posposizioak iruzkintzen eta aztertzen dira, erdarazko baliakideak emanez. Hurrengo artikulu baterako gelditzen da Iruñeko leku-izenik gatazkatsuenen azterketa.

RESUMEN

Este artículo está basado en materiales recogidos por J. M.^a Jimeno Jurío, y forma parte de un trabajo de investigación más extenso. El artículo tiene tres apartados: en el primero de ellos se examinan los sufijos vascos presentes en la toponimia pamplonesa; en el segundo se hace una lista de los genéricos romances que aparecen en la toponimia de la capital navarra, a la vez que se dan sus equivalentes vascos, tomándose los ejemplos principalmente de la toponimia de Pamplona y de la Cuenca. En el tercer apartado se comentan y examinan las posposiciones vascas que aparecen en los topónimos de la ciudad, y se dan sus equivalentes castellanos. Queda pendiente para un próximo artículo el examen de los topónimos pamploneses más conflictivos.

RÉSUMÉ

Cet article est basé sur des documents repris par J. M. Jimeno Jurío, et fait partie d'un travail de recherche plus étendu. L'article a trois paragraphes: dans le premier on examine les suffixes basques présents dans la toponymie de Pampelune; dans le deuxième paragraphe on fait une liste des génériques romans qui apparaissent dans la toponymie de la capitale navarroise, on donne à la fois leurs équivalents basques, en prenant les exemples de la toponymie de Pampelune et de la Cuenca. Dans le troisième paragraphe on commente et on examine les prépositions basques qui apparaissent dans les toponymes de la ville, et on donne leurs équivalents espagnols. Il reste en suspend pour un prochain article l'examen des toponymes de Pampelune plus polémiques.

SUMMARY

This article is based on the material collected by J. M.^a Jimeno Jurío, and was a part of a deeper investigation. The article has three parts: in the first one the Basque suffixes present in the Pamplonese toponymy are analysed; in the second one there is a list of the generic Romances that appear in the toponymy of the capital city of Navarra at the same time as its Basque equivalents are given, taking examples basically out of the toponymy of Pamplona and its "Cuenca". In the third part the Basque post-positions that appear in the toponymies of the city are commented and studied and their Spanish equivalents are given. The study of the most controversial toponymies of Pamplona is pending for a next article.